



## Irakasleak mintzo

# **Mintzamena 1. urratsean: ikaskuntzako helburuak aztergai**

## ZUTABE

*Garbi zehazturiko markoa behar du euskara-irakasleak bere lana, epe luzerakoa zein laburrerakoa, tajuz antolatzeko. Horrek esan nahi du ikaskuntzako helburuak finkatu eta idazteko gai izan behar duela. Ez da lan makala, alajaina! Ideiak elkartrukatzeko leku ireki eta eztabaidagune jori eta bizia izan nahi duen sail honetan, helduen euskara-irakasle zenbaitek helburu jakin bati buruz azaldutakoa eskaintzen dugu oraingoan, guztion intereserako izango delakoan.*

### **Kasua**

Irakasle batek ondoko helburu hau idatzi du 1. urratserako: “Komiki mutu bat kontatzeko gai izan behar du ikasleak, pertsonaien ekintzak zehatz-mehatz azalduz eta arrazoituz”. Eta xede hori eskuratzeko, 40. orduan ariketa bat egingo du. Zer erizten diozu irakasle honen planteamenduari?

### **Erantzunak**

*Jose Luis Azpillaga  
Goenaga (Elgoibarko  
Udal Euskaltegia)*

Lehenik, esan behar dut eztabaidarako aurkezten den planteamendua bere testuingurutik aterea egoteak zenbait zalantza eta galdera sortu didala, eta zaildu egin didala hari buruzko iritziak moldatzea. Esaterako, planteatzen den helburua, helburu bakarra al da?, ala beste batzuekin uztartzen da? Edo, 40. orduan ariketa bat egingo dela esatean, honelako ariketa gehiago ez dela egingo esan nahi da?

Dena den, zalantzak zalantza, hona hemen tajutu ditudan zenbait gogoeta.

Komiki mutuak asko erabiltzen diren baliabideak dira hizkuntz irakas-kuntzaren urrats guztietan, eta, batez ere, nire ustez, hasierakoetan. Izan ere, dituzten zenbait ezaugarrik (laburtasuna, istorioen beraien grazia, marrazkien erakargarritasuna...) oso erabilgarri egiten ditu mintzamena edo idazmena lantzeko, eduki berriak aurkezteko, ebaluazio-frogetarako... eta abar.

Horregatik, ez nau harritzen irakasle batek 1. urratseko helburu bezala “komiki mutu bat kontatzeko gai izan behar du ikasleak...” ezartzeak.

Hala ere, zenbait zehaztapen egin nahi nuke:

- 1 1. urratseko ikasle batek ezin du, inondik ere, edozein komiki mutu kontatu, ez ahoz ez idatziz; tresnarik ez du oraindik (aditz-sistemak batipat) kontakizuna behar bezala burutzeko.
- 2 “... pertsonaien ekintzak zehatz-mehatz azalduz eta arrazoituz” egin behar omen du ikasleak kontaketa. Egia esan, 1. urratseko ikasle bati gehiegitxo eskatzea dela iruditzen zait, kontutan hartuta zergatikako esaldiak, adibidez, bigarren urratsera arte ez direla ematen.
- 3 “... Eta xede hori eskuratzeko 40. orduan ariketa bat egingo du”. Desoreka nabarmena ikusten dut helburua eta berau lortzeko jar-tzen diren baliabideen artean; ez dut uste ariketa “bat” eginda xede hori eskuraterik dagoenik.

Bidenabar, esan behar dut 40. ordua oso goiz iruditzen zaidala oraindik istorio mutuak kontatzen hasteko; eginkizun horretarako beharrezkoak diren hizkuntz formak, orainaldi burutua, esaterako, beranduxeago lantzen baitira, eskuarki.

- 4 Azken zehaztapena helburu-motari buruzkoa da. Hau da, eta hone-tan neuk ere zalantza handiak izan arren, beharbada egokiago irudi-tuko litzaidake helburu hori ariketa edo ikasunitate bati edo batzuei lotzea, eta ez urratsari.

Nire ustez, urratsaren helburuek orokorrakoak izan beharko lukete: helburu orokorrak, urratsari dagozkionak, eta helburu operatibo edo zehatzak, unitateari dagozkionak.

*Santurtziko Udal  
Euskaltegia (3.  
urratseko irakasleek)*

Ez dugu uste berrogei ordutan ikaslea komiki bat kontatzeko gai denik. Pertsonaiak deskribatu ahal izango ditu eta beharbada ekintzak azaldu, baina ez inolaz ere “zehatz-mehatz azalduz eta arrazoituz”.

Komiki mutu bat kontatu, deskribatu eta abar 2. urratseko azterketa egitean erabiltzen dugu, eta ordurako ikasleak 240 ordu bete ditu. Eta, hala ere, batzuk ez dira gai.

Beraz, 40 ordu planteiatuta, gutxi direla uste dugu.

*Elixabete Insausti  
(Irungo Udal  
Euskaltegia)*

Lehenengo eta behin, irakasleak lehenengo urratserako zehazturiko helburuari buruzko iritzia eman nahian azalpen bat emango dut.

Irakasle honek zehaztutako helburuak zera dio: komiki mutu bat kontatzeko gai izan behar duela ikasleak, pertsonaien ekintzak zehatz-mehatz azaldu eta arrazoituz. Pertsonaien ekintzak azaltzeko baliabideak lehenengo urratsean ikasiak ditu ikasleak, aditzaren orainaldiko aspektua, deklinabidea eta abar. Baina irakasle honek zehaztutako helburuan, ekintzak azaltzeaz gain, arrazoitzea ere eskatzen zaio ikasleari, eta kontutan izan behar dugu arrazoitzeak eskatzen duen *zergatik* kasua bigarren urratseko edukiei dagokiela. Beraz, ezin dugu azaldu ez dugun eduki baten aurrean erantzun egokia eskatu.

Argi dago edozein hizkuntzatan, eta bigarren hizkuntzaren aurrean aurkitzen garenean, pertsonaren beharrekin batera joan beharko duela hizkuntzaren irakaskuntzak. Hasiera batean eskatzen eta aginduak ematen ikasi beharko du, ondoren deskribaketa etorriko zaigularik. Hirugarren fase batean narrazioa edo kontaketa etorriko litzateke, eta, hau ondo menderatu ondoren, abstrakziora joango litzateke.

Nire ustez, 40. orduan, ikaslea deskribaketak egiteko baliabideak eskuratzen hasia da, eta mota honetako ariketaren batekin hasi beharko genuke. Poliki-poliki, eduki berriak azaltzen eta ikasten doazen neurrian, istorio mutuen kontaketa egiten hasteko gaitasuna lortuko du, pertsonaien ekintzak ondo zehaztuz eta arrazoituz.

Arestian aipatu ditudan arrazoiengatik, irakasle honen helburua ez da, nire ustez, lehenengo urratserako egokia.

*Nekane Agirre  
Andonegi (Mutriku  
eta Debako Udal  
Euskaltegia)*

Irakasle horrek lehenengo urratsari ezarri dion helburuarekin ados nengoke, ondorengo puntualizazio hauek egingo nizkiokkeen arren:

- 1 Nik ez nuke “zehatz-mehatz” terminoa erabiliko; aditz laguntzaile egokia, trantsitiboa/intrantsitiboa, alegia, erabiltzen nahikoa lan izaten baitute gehienetan. Gehiegitxo deritzot, beraz, ekintzak zehatz-mehatz azaldu behar izate horri.
- 2 Urrats honetan jaso eta landu dituzten hizkuntz forma urriak kontuan izanik, ekintzak “arrazoitzea” ezinezkoa ez bada ere, oso zaila iruditzen zait. “Arrazoitzeko” baino egokiago izango litzateke ekin-tzen helburua adierazteko gai izan beharko dutela esatea. *Zertara*, eta ez *zergatik*, alegia.
- 3 Komiki mutuari dagokionez, nik “gizon orratza” edo tankerakoren bat erabiliko nuke. Nik neuk honako hau aukeratuko nuke (ikus .1).

Xede hori eskuratzeko 40. orduan ariketa bat egingo duela diozu, eta, besterik zehazten ez duzun arren, komiki baten inguruko kontaketa ariko dela uste dut; nik horrela interpretatu dut behintzat, eta ongi erizten diot gainera. Jakina, 40 eskolorduren ondoren, asko murrizten da hasieran aipatutako helburu hori: “da”, “dago”, “bizi da” eta “du” besterik ezingo baitu erabili. Ariketa honetarako, komikia baino erabilgarriagoa litzateke argazki edo marrazki estatikoren bat, deskribapena egin dezaten eskatuz. Adibidez, nik honelako bat aukeratuko nuke (ikus .2).

Marian Azpiazu  
Sarasola  
(Errenteriako Udal  
Euskaltegia)

Planteamendu honen aurrean zenbait zalantza sortzen zaizkit:

- Zein da irakasle honen programazioa?
- Zeintzuk dira bere helburu orokorrak?
- Nolakoa da irakaslearen beraren jarrera nahiz urratsarekiko prestakuntza, edota eskarmentua?

Guzti hau niretzat ezezaguna da. Ematen zaidan datu bakarra zera da: prozesu orokorraren (euskalduntzearen) hastapenean kokatu litekeen helburu eragile bat eta berau gauzatzeko ariketatxo bat (ariketaren berri-rik ere ez zait ematen).


Esan beharra daukat beste zenbait puntu garrantzizkotzat dauzkadanak ez direla aipatzen:

- Ingurunea
- Zentru-mota: euskaltegia, barnetegia...
- Erritmoa
- Eta, batez ere, ikasleen ezaugarriak: taldea


Beraz, saiatuko natzaizue, besterik ez bada ere, galdekizun zabal honi ahalik eta erantzun zehatz eta argiena ematen, horretarako zenbait puntu suposatuz:

- Arestian aipatu duzuen helburu eragilea ikasturteko programazio kurrrikular egoki baten barruan kokaturik aurkitzen dela, eta HABEK argitaratutako *Programak* liburuxkan agertzen diren irizpideak behar adinako neurrian kontutan hartuak izan direla.


● GOIZA



● EGUERDIA




● ARRATSALDEA



- Taldeko dinamika, erritmoa, ikasle-kopurua, irakaslearen edo euskaltegiaren baliabideak eta beste zenbait abartxo "normaltasun" batean koka ditzakegula.





Honela izanik, pasa gaitezen itaunaren koxkara; erantzun fermurik ezean, baliagarri gerta dakizkizuekeen itxaropenean irizpide gutxi batzuk ematera nihoakizue.

Ezbairik ez hasierako planteamenduarekin: “Garbi zehazturiko markoa behar du euskara-irakasleak bere lana, epe luzerakoa zein laburrerakoa, tajuz antolatzeko. Horrek esan nahi “ikaskuntz helburuak finkatu eta idazteko gai izan behar duela.”

Alde batetik, ezinbesteko premisa hau, irakasleak pentsaturiko helburu honetan isladatuta ikusten dut. Epe laburrerako zein luzerako helburua izan daitekeena (hau ezagutzen ez ditugun eta hasieran aitatu ditudan baldintza batzuen menpe egongo litzateke).

Bestalde, komiki-mundua zabala dela kontutan hartuta, gehixeago zehaztu beharko litzateke irakasle honek eginiko formulazioa. Dena den, bete daitekeelakoaren iritzikoa naiz. 40. orduan helburu hori lortzeko ariketa bat egiteari ondo deritzot, baina ariketa bakarra guztiz eskasa da horrelako helburua lortzeko; eta jakin beharko genuke hori eskuratzearen nolako ariketak eta zein maiztasunekin planteatzen dituen.

Azkenik, komentario gisa, esan dezadan poztu egiten nauela horrelako helburu batek (1. urratsean jadanik helburu eragile bat mintzamenari zuzendua izateak); hori izaten baita urrats txiki hauetan aritzen garenon mamutzarra.

Besterik gabe, horrelako lanak jorratzen jarraituko duzelakoan, idazmakinarean aurrean trakets hutsa duzun irakasle honen agurrik beroena jaso ezazue.